

**Txillardegi**

Idazlea

**120.000**

■ Bitan entzun dugu kopuru bera azkeneko egu-notan: 120.000.

Ehun eta hoge mila euskaltzale elkarturik euskararen alde. Ohitu ere egin gara. Baina manifestazio politikoetan 40.000/ 50.000 zifrak nekez eta bakanka bajzik lortzen ez direlarik, bihotz altxagarria da nazio-hizkuntzaren aldeko manifestazioetan muga nabarmenki gorago agertzea.

Bazen garaia, egia esan. Baina gaur horixe da errealitatea: jende gehiago mogitzen duela euskarak, gainerako programa politiko guztiek baino.

Lezoko festan 116.000 euskaltzale elkartuta, Tafallakoan 120.000. Noiz gertatu da horrelakorik gure herrian? Sekula ez. Hortaz, gure herria aurrera doa. Aurrera, bai; gure herriaren ardatza euskara baita.

Hala ere hau zalantzan jartzen dutenak ez dira urri.

Alde batetik hau entzuten dugu: «jende-bilera gaitz horiek folklore hutsa dira, jendea barra barra ari da erdaraz zirkuitoetan eta bestetan».

Besterik ere, dena zikin uzten dute: hamaika lata bazterretan, hemendik eta handik egundoko pix-usaia, mozkorra franko arrastiritako...

Euskaltzale zibilizatu batzuk, hitz batez, jai populachero horien kontra daude: Europan bizi gara, eta gaur egun baditugu Jaurlaritza eta Navarrako Gobernu Amejoratu herri-nahi horiek behar bezala bideratzen. Eta, hitz batez, gairiditu egin behar omen dira frankismoaren garaletatik kutsatu zaizkigun modu pre-demokratiko horiek.

Nik neuk, ordea, eta agian irakurle mordo batek bideberetik, komenigarriak ez-ezik hertsiki beharrezkoak direla uste dut horrelako ibilaldiak eta kilometroak.

Mundu politiko profesionalaren inguruetan, deformazio gaitza egoten da: dena txosten, paper, zenakulo, eta izkutuakeria burokratiko. Baita euskaltzalerik finenek ere, giro horretan zenbait urte

para ondoren, haria galtzen dute. Eta posibilismo famatu horren aitzekian, potto: dagoena administratu, eta kitto. Aski lan! «Zuek ez dakizue UPN edo PSOEren ondoan lan egitea zer den. Ez dakizue guk nolako merezimenduak ditugun».

Hots, bart jakin genuenez, azkenean, Nafarroako Unibertsitate ofizialak, UPN sigla adierazgarria daramanak (premonizioa ote?), Nafarroako hizkuntz arazoa aztertzen bere xede berria azaldu du. Bai jaun-andereok!

Nondik ote dator aldaketa bitxi hori?

Ziur nago erabaki horrek oso urruti dauzkala bere sustraiak, gauza aspaldidanik datorrela, eta abar. Baina ez dut uste kasualdada denik Tafallako Ikastolaren aldeko manifestazio muntsoaren biharamonean berri pozgarri hori kaleratzea. Politikari profesionalak, oraindik ere presarik ez dagoela uste dutenek berek ere, amore emateko behar gorria senditu dute.

Eta honek Irlandara narama.

Irlanda Askatuen nazio-hizkuntzaren aldeko legeak eta asmo onak ongi ezagunak dira. Baina, berek ere aitortzen dutenez, herri-mogimendu azkarrik ez dagoelako, potto: gaelikoa, ofiziala izan arren, putzura.

«Ah! -esaten zidan Irlandaren aldeko amorratu zeltiar batek orain dela hamar bat urte- Zer ez gentuke guk emango zuen kilometroak eta gainerako herri-mogimendu horiek hemen Irlandan izateko? Euskaldunok ez zarete konturutzen!».

Eta Lezoko, Tafallako eta gainerako jende-bilera harrigarrietan uzkur agertzen zaizkigun hortek, hau gogorazi behar zaie. Burokraziaren munduan bizi diren buruzagiak astintzeko eta akuilatzen, bide bat baizik ez dagoela: kale-prestoa.

Zorionak, beraz, Tafallarri; Ikastolako zuzendaria den usuarrari (lehen ujuetarro esaten omen zen...); eta hitz batez Hegoaldeko lurralde horietan, Baskongadetan maizegi ahantziak, Nafarroa euskaldunen marka ber- ipintzen ari diren guztiei. ■

**Lezoko festan 116.000 euskaltzale elkartuta, Tafallakoan 120.000. Noiz gertatu da horrelakorik gure herrian? Sekula ez. Hortaz, gure herria aurrera doa. Aurrera, bai; gure herriaren ardatza euskara baita.**

**Josu Lartategi**



**Zentzugabeko distantziak**

L agunmin baten koadrilari antzinako tragedia greziarren antza hartuko diot nik martxa honetan segituz gero.

A-k ezinikusia baitio P-ri lazko jokabide anker batengatik. R-k eta M-k ez diotelako elkarri apenas berbarik egiten azken hauteskundeetatik hona. Y Z-rekin suminduta baitago, S V-rekin zapuztuta, I L-rekin amorratuta eta J TX-rekin minduta. Nire lagunari, influxente horri, erditxantxetan zebiltzala otu zitzaion estreinakoan, aspaldiko lagunak elkarri gaizki-guran ikusi zituenean. Handik gutxira, edozein txikikeriagatik hasi ziren behingotik behingora eztabaidan. Azken hil honetan, ume denboratik lagun direnak urruntzen hasi dira ezinbestean, oraingo egoera kasik mutura heltzeraino.

Bitxiena zera da, inork ez ei duela horrela jarraitu nahi, haien artean gaizkiulertuak baino ez ei direla egon, harakoak ez ei zuela beste hura mintu nahi, eta honakoa mozkorra ei zegoela beste honi esanak esatean. Baina, jakina, kirioetaraino mintu gaituztean gaxt da oso inori barkamena eskatzea, edo maitasuna agertzea, edo oker gabiltzala aitortzea. Bada, agian, muga bat, zeinatik iragaiten atzera bueltarik ez dagoen.

Bitartean, nire lagunmina goibel dabil, eta eroria. Bai, mingarria behar du izan hausturak, lagunartearen akabuak, edo akabuaren hasierak. Ni, panorama ilun horren aurrean, ez naiz kapaz sentitu gauzak arzetuko direla esatera. Ezta ere esatera agian hobe dela guztientzat agurraren lezioa, ahazten ikastea, elkarrengandik asagotzea, urtetan pilatutako gorrotoari bide ematea. Bada esaera txinar bat: *maitasuna behar da gorrotoa dizut esateko*. Eta nik gaineratuko dut adorea ere behar dela handituz doazen zentzugabeko distantziak laburtzen saiatzeko.

Izan ere, lagunminaren koadrilan dena da isiltasun eta zentzugabeko distantzia. Nire herrian bezala. Mundu guztia arrotz.

**Kornerra**

**Mikel Elorza**

**Soziala, lehengoa**

■ Boto-emalea printzipioz inozo samarra da: botoaren bitartez agintea ematen du, eta agintariak gero gauzak egiten ditu, baita botoa eman dion horren aurka bada ere. «Lau urte barru ez diezadala eman». Gainera, normalean hurrengoan ere ematen zaio. Alderdikoa baita, eta «ez naiz ni orain beste alderdi bati botoa ematen hasiko».

Boto-emale den heinean agian, baina norbanakok inozotik ez du ezer. Hala ere, agintariak hala uste du eta pagotxa bailitzan saldu nahi izaten du adarjotzea baino ez dena. Badakite Bilbao-Behobia autobideko bidesariak sei urte barru desagertu behar duela, eta herritarrek hala nahi dutela. Ordea, moztarra asmatu dute: *bidesari soziala* deitu diote oraingoa %30 merkatzeari. Milioiak zakuka irabazi dituenak sei urtez poltsaka bakarrik irabaz ditzala, beste 30 urtez zakuka irabazten jarraitzeko. Ez jaun-andreak, *Bidesari soziala* orain artekoa izan da, denok pagatu duguna. Oraingoa amarrua da.

L A P I h I T Z A

